

BERTON EROSIZ ERANDIO LORATU

Herriko merkataritza bultzatzeko asmoarekin aurrera goazela, Erandioko Udalak herriko dendetan kontsumitzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina diseinatu du, abian den udaberriko kanpainaren sasoian garatzeko.

Zertaz ari da?

“Berton erosiz Erandio loratu - Tu compra en Erandio florece” kanpainaren bidez honako ideia hau adierazi nahi dugu: herriko dendek bizitasunez eta kolorez janzten dituztela gure kaleak, eta, gainera, erosketak herrian egitean bertan sustraituko den hazia erein, enpleguari eutsi eta erandioztarren eskuetara itzuliko den aberastasuna sortzen dugula.



Nola identifikatu kanpaina?

Kanpainak hainbat euskarri izango ditu eta, bestek beste, kanpainaren irudi nagusia eramango duen binilo bat banatuko zaie Erandioko denda guztiei erakusleihoetan jartzeko.

Metroan publizitatea



Erakusleihoetan biniloak

Totem

Proposamen horrek “merkataritza berdea” deritzogunaren aldeko jarrera ere erakusten du. Tokian tokiko dendetan erosita ez dugu joan-etorrietarako autorik hartu behar, eta, horrela, CO2 isurketak murriztuko ditugu.

Horrela, bertoko dendetan erosten duten bezeroen fideltasunari esker, Erandioko merkataritza berriro loratuko da aurrean, herri osoaren mesederako.



Erandio!

